

Matturinaren gaphoinak

(Ager-tokia zerkatuko choko bat , karrika edo bide ezkina bat)

I

Mariena eta Margaita sartzen ari direla .

Margaitak - Nola haftua zaukun Matturina hori ?.... Nola nor-girakutua den !..

Marienak - Matturina ?... NOngo Matturina ?

Margaitak - Ezagutzen ahak duzu !... Handibideko Matturina, Tomas kohkor zenaren emastea.....

Marienak - Zer emasts eñul esdeus hura ?.... Doidoi hiru antzara mainguen zaintzeke on zen emazte hura ?

Margaitak - Hura eta bera ! Duela zombait hilabete ahaide mitchurdin chahar batek utzi diozka zituen guziak - ehun mila libera diotenaz- eta geroztik gure Matturina gizagaizoak uste du munduan ez dela bera bainu huru ernea ggorik eta abilagorik.....

Marienak - Haimbertzeta raino ba !

Margaritak - Hortan geldi balitz oraino ! Jende chehearen trufan ~~baisik~~ ez du onik gehiago.....

Marienak - Nortas trufatu da hoka ?...

Margaritak - Denetaz !... Azken azkenik nitaz....

Marienak - Hortaratu baitguk dudarik gabe zuhau!

Margaritak - Ez eta hais ere!

Marienak - Non neizikuzi duzu bada ?

Margaritak - Ostian horchet... Okindegiko athe-antzinean jarririk zagola, bi gaphoin otharre baten barnean... Bi oren ibili ondoan karrkaz karrika bere gaphoinak saldu beharrez eta ezin salduz, horchet gelditua da.... Badakizu zombat galdetu dautan nere bi gaphoinarentzat ?....

Marienak - Jainkoak daki ?....

Margaritak - Lauetan hogoi libera!

Marienak - Debrientchoa! Ez da guti gose gura Matturina... Lauetan hgoi libera bi gaphoin!... Denak kario dire, bainan halarik ere...

Margaritak - Erosi nahi niozkan, emaitza pollit plantako bat nahi bainioke egin norbaiti... Bainan lauetan hogoi libera!... Ez baikire ba aberatsak Nere moltsaren meneko bertze zerbait atcheman beharko...

Marienak - Zertan trufatu zaitu ordean ?

Margaritak - Eskuetan hartu ditut beraz haren gaphoinak, hastatu behar nituela Ez dakizu zer athera dautan ber moko mehetik, halako irri trufa hatekin. Lauetan hogoi libera, gaichoa... arditik ez gutiago... gaphoinak dire gero Bertzela ez zu bezalako aho urruntek ez dute gaphoinik jaten!... Biatzarra Bihorza tapatu zaut eta urrundu niz tutik erran gabe, ahalgetua....

Marienak - Emazte higuina!.... Zaude zaude... Auzia ez dauka ez oraino irabazirik... Handian nausitu zautzu, bainan orai ikusiko jokoan natsu tuka zaukunetz... To hain chuchen orra non heldu diren hanchet Franchiska... Dominica eta Kattalin... Holako lagunekin hogoi-ta hameka eta esku dugu ... Goazen heien gnat eta nik errana nahin balin badute egin, uste dut gure Matturinak... To behazul!... Bai, bai... laster, goazen laster, ez gaitu elagarrek kin ikusi behar....

II

(Matturina bakarrik)

(Besotik dilindan otharre bat bere gapkoinekin, beso pean parasola handi bat

bertze eskuan kadera bat... Kadera pausaturik jartzen da otharrea bere aitzinean)

Ai ! ei !ai! Oren bat karrikaz karrika holako otharre pizua besoetan , akitzen dela gero jendea .. Bederatzi orenak eta nehor ez dela agéri oraino!... zer haumerrak karrikako jende hoik!... Ez arima bat ez gatu bat... Hambat gauchto!... gauden beha ... ez othe da hobe goizegi ethortzea berantegi baino ? Cho borbeit heldu....

III

Frantchiskak- Bazaude beraz!

Matturinak- Bai, zu ere ibilki!

Frantchiskak- (otharreari ohartuz) Ihzi ederrak ditugu hor ?

Matturinak- Uste nuke... batere espanturik gabe urrun joan behar ziniztak edo ragoen kausitzeko Ez dute iduri, bainan hazta zaitzu hauk... Hamar libera pizu dituzte...

Frantchiskak- (harritua bezela, bainan gaphoinak Matturinaren eskuetari artu gabe) Errazu berriz!... Nere uztez ez dit ontsa aditu...

Matturinak- Erran daurzut hamar libera pizu dituztala geiz huntant pi zatua!

Frantchiskak- Astapr bakotchean harri bat emanik dudarik gabe.. horrieder bat

Matturak- (Kethatzen ari dela) zer diozu ? Oraikoan nik dut ez ontsa aditu...

Frantchiskak- Etzaitela khecha, emaste gaichoa ... mintza gaiten poliki Ez dut erraitea ez direla ederrak, gezurra nuke... bai ederrak dira, azin ederragoak. Eta bortz liberetan nahi badaizkidatzu utzi... Ori zu zira lakotz eta demborarik ez galtzeko emaiten dauzkitzu bortz libera et bortz sos.. Erran bezela beraz, bortz libera eta bortz sos eta eremaiten ditutu (Gaphoinen hartzerat doa)

Matturinak- (khechu kchua) Irri gose balin bazira edo jendeaz trufatu nahi merkatua da egun eta jende hanitz kausituko duzu cherripertuan.. Ah! ageri duzu ez nuzula ezagutzen, Handibideko Matturina ez duzula ezagutzen... Ezagutzen nuttenek erranen dautzute ee nizal zozoa ez eta phikaren azken unea... Zoaei bichtatik... Behazue hunen kopeta!... Bortz libera eta bortz sos gaphoin pare bat, ditazke gaphoin ederranak... Sei ilabesteko cherri baten bazka behar bainuen kasik hoinen baskatazeak!

Frantchiskak- (luzaz behatzten diola begitarte ponatu batekin) Qi Jainko mai te maitea!.... Emazte gaicho gaichoa!...

Matturinak- (gerota khechuago) Zer derasagu hor emazte gaicho ka!...

Frantchiskak- Zin zinez urrikari zaitut, bai untza urrukari...

Matturinak- Ez du balio!... Jainkoari esker badut osagarria bai eta nere lanetik egin eta chalde bat joria... Ikusten duzu ez nizala urrikaltzakoa

Frantchiskak- Bainan, emazte dohakabea, zure osagarriak eta etchaldeak ez dute deus egitekorik huntan... Erraiterat borchatzentz nuzunaz geroz;... hambar gaichto, erranen dautzu....

Matturinak- Errazu bada...

Frantchiskak- Barkatu, bainan edo itsua giza... edo... edo burutikjoana...

(Alegia Khechu) Beha zazu, dohakabea, beha zazu bafia... Gaphoinak dire ihizi hoik?... Errazu gaphoinak dire ?... Ez da haratik ez hunatik itsua ziza segur....

Matturinak- Ni itsua!... Ez, Jainkoari esker begi onak ditut oraino... Bainan zure arabera zer dut bida nik otharre hortan ?

Frantchiskak- Zer duzun otharrean,... Ez duzu ikusten uso pare bat duzula hor Urso ederrak, gichenak, bainan ursoak eta ez gaphoinak... Eta iduritzentz zitzautan bortz libera bortz sos...

Matturinak- Aski!... Aski!.... Egia zinion ostian, emazte galchoa bida hemen itsu bat, itsua zu zira.... (gerota gorago mintzo dela).. Ursoak?... ursoak nere gaphoinak?... Ha! ha! ha! utz nezazu irri egiterat... Eta Kontseiluño bat nahi balin baduzu nik emanik, zure bortz libera eta borts sosekin zoazi laster luneta pare baten crosterat...

IV

(Matturina mintzo delarik oraino ethorri da Dominica)

Dominikak - Zer da kalapita hau ?.... Zer duzue biek hola oihuka?

(Matturina etzagutzen duela) - Te ! zu Matturina hemen ?....

Geizik ethorria zira merkaturat..... (Otharreari beha)

Zer uso ederrak ditutzun hor!.... Saltzeko dituzu ?....

Azken merkatuan izigarri kario ziren..... Segur niz batereg gezurik
gabe , boitz liberetan edo beharbada sei atxemanen duzula eresle.

Matturinak - Niri burua zozo-arzi beharrez ari zaizte naski biak....

(Dominikari) Zer derazazu zuk ere ?.... Graiche enazte huri niona
ez balin baduzu ontsa ikusten, emaitzu lunetak.... Beha zazue bade
ihizi hoier....

Dominikak eta Franchichak - (bateak) - Ikusten ditugu, ikustan... .

Matturinak - Eta beraz ?

Dominikak - Ederrak dire, ez da erraiteko (gaphoinak hautatzen ditu, othar
rean daudelarik).... Egia erran ez dituzu goizean bihiz haupatuak
ppizuarren emendatzeko.... Bapoa hutza dute..... hera ere bai.... eta
(gaphoinak ezkuetan hartzen ditueha) ...bai, idutitzen gitzautan
bai, begiez hastatuak nintuen jadanik..... pizu dituzte bi libera
segurik....

Matturinak - (gorri gorria khechu) - Bi libera ? Burutik baduzu ? Hamar
libera piau dituze goizean pizatuak.... zeazte biak antzarra pher-
matzerat.... Zuen ursoekin astaña-araziko nuzue....

Dominikak - "z khecha othoi Matturina.... Ez du balio oihuka Martzea....
Euro oihuak bilduke dute jendea hunat.... eta ezagutzen etzaituzten
nekt, suze oihuak entzearrek, usteko lukete....

Matturinak - Zer usteko lukete ?

Dominikak - Jendeek entzuten balin bazaitutze zure ursoak gaphoinak direla
erraiten, usteko dute chortaino bat sobera edana duzula....

Matturinak - Mozkorra nizala ?

Dominikak - Hala erran bezakete segur !

Matturinak - (kachuarekin gorri-belztua) - Mozkorra ?... Ni mozkorra ?...
- Tripa hutsa craino eta ni mozkorra!... Sekuan urik baizik ez edaten
eta ni mozkorra !....

Dominikak - Icho !... Icho !... Matturina.... Hola oihuka artzeak egarri s/a
emaiten du.... eta.... ikus arte.... agian ontsa salduko ditutzu zure
urso-gaphoinak.... (Dominika eta Franchiska atheratzen dire)

V

(Matturina jartzen da, gaphoinak bere aintzinean burua mphal... ichilik
dageumphuk-bat, gogoetatus !)

Matturinak - Ez ditakena da hori !... Norbaitek charnautua segur.... Sorgin-
kerria edo debrukerria zerbait bada hot!.... Bainan debrukak nahi ala
ez nahi, ez ditut ursoak ekarri nik etchetik ! Ez ez ! Non hastuko
nintuen nik ursoak ?... Ez dugu eta ursrik ez ursotegirik ere....
(sakelak ikerturik, luneta pare bat atheratzen du, ezartzen eta othaz
#rea altzoan eaanik).

- Ursoak hauk !... Sekulan eze santan ursoak izan ere.... Narra gorri
hor, buruaren erdian, nihauk mostu kukurustarren marrat.... Eta behatz
hoik astapar azkar hoik !.... Luma luze hoik.... Nehork ikusi du
behin ere holako bustan ederroko ursorik ?... Ez nago lo bederan!...
Ez naiz ametsendarik ari !...

Matturinaren gaphoinak (Suite)

(Gaphoinak hartzen ditu oha ezkuan dauzkala bescak lutzaturik)....

- Emazteg ampeoilak !.... Bi libera ditustela piñu!.... Bi libera eta doi-doiatxikitzen ditut besoa.... (Besoa aphaltzen duala)
Ouf !.... Ai ! zorigaitza ! Bai zinez debrukeria zerbeit bada hor...
Gaphoin hauk ursoak direla bi emazte hoiek erraiteko, zerbaiz sorgin behar da ... (Urratz bat aditurik burua itsultzen du) - To ! huna Kattalin hau ez da emaste hitz uhtzi heietarik.... Niri erosten dauskit aroltzeak merkatu guziez..... Nehork erraitekotz huket erranen daut egia....

VI

(Kattalinek egiten ditu zombait urratx, gelditzekoa ez balitz bezala ...
Matturinak -(irriro batekin) - Adio Kattalin.... zer ! Gisa hortan ibaioaz hitzik erran gabe !.... Ez nuzu bada ezagutu ?

Kattalinek - Nork etzaitu ezagutzen, Matturina ,.... Bainan barkatu egungoitz.... ez dut elheketa egoiteko aizinarik....

Matturinak - Minutazio bat Kattalin.... Eian ! beha zadazu ontsa!

Kattalinek - Zuri beha ?... Zer mirakulu duzu bada?

Matturinak - Handibideko Kattalina niz ni ?...

Kattalinek - Dendarik baduzu !.... Segur Handibideko Matturina zireka....
Bainan berriz ere barkatu ... joan beharra niz.... Uste gabean ethorri // / / / zaizkit hamar bat bazkaltiar , hamar bat hagin sorrotzak, eta eraino ez du dupina baizik susn.... To !... ori orhoitzen bainiz, ohartu zira Olhagaineke Katicha ethorria densz merkaturat ?.... Zer gerta ere banioskan bi gaphoin galdatiak joan den astean... Ikusi behar dut ekharri dituenetz.... Erreki hanitz beharko dutela gero nere hamar bazkaltiarrek... Eguerdike nahi badut nere bazkarria aphaindu, nere gaphoien hiltzeke , lumatzeko eta gerrenean ezartzeko ordu dut....

Matturinak - Eta... gaphoinak nahi zinituzke?

Kattalinek - Hoik?... Ursoak !... entsa ederrak, ontsa gichenak.... Hamar bazkaltiarentzat gutichko baitire.... Berriz arte Matturina, hortse egun batesz egin en dugu tratu.... (Badoa Kattalin)

VII

Matturina bakarrik:

OI ! zeruko ama ona! Nizan bezalako dohagabea!.... Gaicho; ni!.... gaicho ni !.... Gizagaicho ni !.... Ha ! ikusten dut oraikoan, sorgindu nute.... Banaki bederen nork !.... zer egin, Jainko maiten.... Zer egun tzarra hau !.... (berriz ikertzen ditusla bere gaphoinak)... Ala di ede bai eta nazki egia diote bertzeek Nere gaphoinak.... Batere ez daki ez gero !.... Orai hobeki behatzearekin, iduritzen saut ez direla nik goizean ekharri hek.... eta ursoak direla.... Denek hala diñe eta bethidanik sei begiek biek baino hobeki ikusten.... Debruak neremala etcherat itsultzen balin baditut nik ihizi sorgin hauk... Ez nahiago ditut hemen berean libratu.... doazila nahuten tokirat....

VIII

(Matturina sekaren mozterat doalarik bere gaphoinen libratzeko, ethorri da Margarita)

Margaritak - Zer ! oraino hor !... Ez dituzu saldiak ?... Eta khechu hura joan zautzu azkenamn ?...

Matturinak - Ez nintzan khechu !

Margaritak Estion bazinien haatik zerbait, errazul.... (Matturina bezala mintzo dela) ... Gaphoinak ez dire pobren ahoarentzat!.... Orheit zira!.... Zer johan zautzu, eroslea izan dadin pobrea ala aberatza, pagatzen balin bazaitu.... Gure sesak ez othe du aberatsaren sesa balio ?.... Ikuisten duzu ez nizala thematsua..... berriz heldu niz..

Bian !... kalapptarik gabe, zombat nahazu zure ursaentsat ?

Matturinak - (humilki) - Borts libera eta bortz sos ukiten nintuen-estio... estion.... Sei libera eginen ahalko nintuela erranz dautete?????

Margaritak - Orizu beraz zure sei liberakoa.....

Matturinak - Milesker !... Eta ez adiorik.... (Birua sakelan emanik, kadera, otharrea eta parasola harturrik, badoa bichi bichia)

IX

Margaritak -Laster badosnetz !.... Behazue, behazue... Uste du bai naski zerbaitsorgin baduela endotik.... (Gaphoinak erakutsiz) ~~Zer~~ Zer gaphoin ederrak !.... Sei liberetan ez dire karlo !.... (Oihu egiteh duela bere laguneri) Hou !... zatezte ! ~~zahozte~~.... (heldu dire bertzeak).... Sakuan sarthu-dugunetz gure Matturinai...

Marienak - Zuk errazu !....

Dominikak - Bere ahaide chaharrak utzi diruak ez du hainbat abildu !..

Franchiskak - Izaitekotz ere hak khebdu dio azken phirua.....

Kattalinek - Sta zoin ederrak diren haren gaphoinak!;...

Margaritak - Ez ditu saldu nahi bezain zalu omino!... Tratua laster egin dugu !....

Kattalinek - Orheituko ahal da luzaz guk eman erakazpenaz, pichka bat hobatzeko.....

Franchiskak - Bai, eman diogu erakazpen eder bat.... bainan ez baitugu gures ez dena atchiki nahi ..Behazue nola doan den hanchet biskarra makurtua..... Egin dezogun oihu....

Guziek - Matturina !... Matturina !...

Matturinak - (urrunetik) - Zer da ?

Margaritak - Zato zure gaphoinen bilha.....

Matturinak - (Toki beretik) - Tratua tratu !... Akabo !... Akabo!...

Margaritak - Bainan, emazte choroa; gaphoinak direka !

Guziek - Gaphoinak ba !...

Matturinak - Hobe; hobe segur !... On daikezuela !...

Marienak - Ne !.... horra pollitena !.

L. LEON

:---:---:---:---:---:---:---:---:---:---:---:---:---:---: